

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko urtarrilaren 24a

5. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

—11-25/LEY-00001. Foru-lege proiektua, Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentzia arautzen duena (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-25/ITP-00003. Interpelazioa, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza-politikari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (6. or.).

—11-25/ITP-00004. Interpelazioa, arrazoi sozialak direla-eta Gobernuak kontratazio publikoaren arloan darabilen politika orokorrari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (7. or.).

—11-24/MOC-00133. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Errenta Bermatu sendotu, indartu eta igo dezan, baitezpadako gizarte-eskubide bat den aldetik, halako moduan non bermatu egingen baita errenta hori beharrezkoa duten pertsona guztiek jasoko dutela eta zenbatekoak familien beharrianetara egokitu baitira. Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Batzordean izapidetzea (8. or.).

—11-25/MOC-00002. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharrezkoak diren neurriak har edo susta ditzan, zertarako eta udalek sarbide liberako deitzen diren lanpostuen gehienek % 20 erreserbatu ahal izateko Indar Armatuetan zerbitzuan bost urte baino gehiago eman dituzten tropako eta marineltzako militar profesionalentzat, bete gabeko plaza erreserbatuak deialdiko gainontzekoei gehituta, Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legean ezarritako baldintza guztiak beteta. Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztu du (8. or.).

—11-25/MOC-00003. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu "España en libertad" izeneko ekimenarekin, 2025ean zehar diktadura gainditu izanaren 50. urteurrena ospatzeko, eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitu bere lan-plangintza ezartzen jarrai dezan, Espainiako Gobernuarekin lankidetzan, gure demokrazia eta eskubide eta askatasunen konstituzio-erregimena sendotzeko. María Inmaculada Jurío Macaya andreak aurkeztu du (11. or.).


F SAILA:

Galderak:

—11-25/POR-00020. Galdera, Rozalejoko markesaren jauregia egokitzeko obrei buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (12. or.).

1

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Fecha	24/01/2025 08:41:58
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	NEREA MARTIN CESTAO (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Página	1/32



- 11-25/POR-00021. Galdera, Nafarroako Bizikidetzari buruzko II. Plana abian jartzeari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (13. or.).
- 11-25/POR-00022. Galdera, proba diagnostikoak egiteko batez beste itxaron beharreko denborari eta paziente-kopurua argitaratzeari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (14. or.).
- 11-25/PES-00007. Galdera, oinarriko osasun-laguntzako egiturazko erizain-lanpostuak kentzeari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (14. or.).
- 11-25/PES-00008. Galdera, Nafarroako hazkunde ekonomikoa bultzatzera bideratutako diagnosirako, ekintza-planerako eta ebaluazioaren jarraipenerako laguntza tekniko kontratatzeari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (15. or.).
- 11-25/PES-00009. Galdera, enpresek Nafarroan sortzen dituzten enpleguei buruzkoa. Ana María Elizalde Urmeneta andreak egin du (16. or.).
- 11-25/PES-00010. Galdera, jakiteko ea energia-kalifikazioaren ziurtagiria eduki beharra betetzen ote den. Cristina López Mañero andreak egin du (17. or.).
- 11-25/PES-00011. Galdera, jakiteko ea zer neurri hartu diren Nafarroako etxebizitza kolektiboko eraikinek 2030eko urtarrilaren 1etik aitzina B mailako edo goragoko energia-kalifikazioa izan dezaten. Cristina López Mañero andreak egin du (17. or.).
- 11-25/PES-00012. Galdera, klima-aldaketan eta trantsizio energetikoan genero-ikuspegia betetzeari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (18. or.).
- 11-25/PES-00013. Galdera, errepideak zeharkatzen dituzten faunarendako pasabideetarako neurriei buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (18. or.).
- 11-25/PES-00014. Galdera, Nasuvinsak Tafallako Manero Enearen orubean etxebizitzak egiteari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (19. or.).
- 11-25/PES-00015. Galdera, AHTaren Nafarroako trazadura zehazteko egin beharreko laginetan izandako sabotajeen ikerketari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (20. or.).
- 11-25/PES-00016. Galdera, Prodigioso Volcán enpresak egindako ekintza estrategikoen emaitzen eta inpaktuaren ebaluazioa bidaltzeari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (21. or.).
- 11-25/PES-00017. Galdera, Prodigioso Volcán enpresak Nafarroa marka sustatzeko bere planean jasotako ekintza estrategikoen proposamenak bete izanaren akreditazioa bidaltzeari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (21. or.).
- 11-25/PES-00018. Galdera, “Coyuntura Ambiental de Navarra” aldizkariak argitaratzeari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (22. or.).
- 11-25/PES-00020. Galdera, Nafarroako Ubidearen eta Kontzesio Obren Bulegoa sortzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (23. or.).
- 11-25/PES-00021. Galdera, Nekazaritza Politika Erkidearen ordaintekak pertsona juridikoei atxikitzeari edo enbargatzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (24. or.).
- 11-25/PES-00022. Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak NUPeekin noiz sinatuko duen hura 2025etik 2028ra bitarte finantzatzeko hitzarmena, 2024ko abenduaren 23an eman baitzen horren berri. Cristina López Mañero andreak egin du (24. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-25/ELCO-00001. Nafar Komunitateen Kontseiluan Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen bi ordezkari eta horien ordezkoko hautatzea (25. or.).
- 11-25/REPA-00001. Foru parlamentariak nahiz Legebiltzarraren zerbitzuko langileek egindako bidaia ofizialengatik 2025. urterako ordainsari-araubidea (26. or.).
- 11-25/REPA-00002. Talde parlamentarioek 2025. urtean jasoko dituzten dirulaguntzak (26. or.).
- 11-25/REPA-00004. Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 2025. urterako ordainsariak (27. or.).
- 11-25/REPA-00004. Foru parlamentarien 2025. urterako ordainsariak (27. or.).
- 11-25/REPA-00004. Foru parlamentariak bilkureta bertaratzeagatik 2025. urtean jasoko dituzten ordainsariak (28. or.).
- 11-25/REPA-00005. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioek eta kontratudunek 2025. urtean jasoko dituzten ordainsariak (28. or.).
- 11-25/REPA-00005. Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek 2025. urtean jasoko dituzten ordainsariak (29. or.).

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Fecha	24/01/2025 08:41:58
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	NEREA MARTIN CESTAO (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Página	2/32



A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-25/LEY-00001. Foru-lege proiektua, Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentzia arautzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-teari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2025eko urtarrilaren 15ean hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentzia arautzen duen foru-lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Xedatzea Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentzia arautzen duen foru-lege proiektua prozedura arruntari jarraituz izapidetu dadila.
2. Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitaleko Batzordeari esleitzea proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena.
3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik hamar egun balioduneko epea irekiko da, **2025eko otsailaren 10eko eguerdiko 12:00etan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteak eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote foru-lege proiektuari.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proiektua, Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentzia arautzen duena

ZIOEN AZALPENEA

Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentzia Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen bidez sortu zen. Lege horren 6.2 artikuluan, agentzia sortzeaz gain, xedatzen da ezen erakunde hori Nafarroako Gobernuan energiaren arloko eskumenak dituen departamentuaren plangintza eta politika orokorreko jarraibideen menpe egonen dela eta departamentu horri atxikiko zaiola.

4/2022 Foru Legearen lehen xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz, foru lege honen bidez arautzen da Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentzia, foru-sektore publiko instituzionalaren barruan sartuta, eta, horrekin batera, zehazten dira haren nortasun juridikoa, erakundea eratu izan nahi diren helburuak eta esleitzen zaizkion eginkizunak.

1. artikulua. Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentzia.

1. Nafarroako Energia-trantsiziorako Agentzia (ATENA-NETA) enpresa-erakunde publikoa izanen da, hau da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 38.a) artikuluan ezarrita daudenen gisako erakunde publiko bat, eta berezko nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasun eta kudeaketa autonomia osoak izanen ditu, horrek ukatu gabe Foru Komunitateko Administrazioarekin tutoretza harremana izatea.

2. Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentzia Nafarroako Gobernuan energiaren arloko eskumenak dituen departamentuari atxikita dago, eta departamentu horren plangintza eta politika orokorreko jarraibideen menpe; departamentu horrek beteko

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Fecha	24/01/2025 08:41:58
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	NEREA MARTIN CESTAO (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Página	3/32



ditu, agentziari dagokionez, ordenamendu juridikoak emandako kontrol eta tutoretza ahalmenak.

3. Nafarroako Energia-trantsizioarako Agentziak gauzaten dituen jardueretan aintzat hartuko du genero ikuspegia klima-aldaketaren eta energia-trantsizioaren arloan, Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legean xedatutakoarekin bat.

4. Era berean, Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentziak beteko dituen jarduera guztiek kontuan hartuko dute irisgarritasun unibertsalaren printzipioa, Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzko azaroaren 25eko 31/2022 Foru Legean xedatutakoari jarraikiz.

2. artikulua. Helburuak.

Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentziaren helburuak honako hauek dira:

a) Energia-trantsizioaren arloan Foru Komunitateak eta Estatuak hartutako konpromisoak betetzen laguntzea.

b) Energia eredu jasagarria lortzea, energia iturri berriztagarrietan, sorkuntza banatuan eta auto-kontsumoan oinarrituta egonen dena.

c) Klima-aldaketaren eta haren ondorioen kontra borrokatzea, eta ondorio horietara moldatzeko neurriak sustatzea.

d) Jarduketak sustatu eta gauzatzea energia efizientziaren, kudeaketaren eta aurrezpenaren arloan.

e) Energia-trantsizioaren arloko azterketak eta analisiak egitea.

f) Energiaren arloko ekimen publikoa sustatzea esparru instituzional guztietan.

g) Nafarroan sustatzea energia berriztagarrien (eolikoa, fotovoltaikoa, eguzkiko energia termikoa, biomasa, geotermia eta beste batzuk) ekoizpena eta sorkuntza banatua, bai eta auto-kontsumoa ere, ahaleginak eginda 0 km-ko energia bazter guztietara zabaltzeko, Nafarroako biztanleen subiranotasun energetikoa erraztu eta laguntzeko, eta energia demokratizatuzko.

h) Lan egitea Nafarroa lider izan dadin energiaren sektoreko ezagutzan eta berrikuntzan.

3. artikulua. Eginkizunak.

Bere helburuak betetzeko, Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentziak bere estatutueta ezarriko diren eginkizunak beteko ditu, eta, oro har, honako hauek dira:

a) Nafarroako Energia Plana proposatu, diseinatu eta egitea, bai eta egokituz jotzen diren plan horren aldaketak ere.

b) Nafarroako Energia Plana osotara betetzeko behar diren ekintzak aurrera eramatea, planean jasotzen diren helburuak bete daitezzen zaintzea eta planaren betetze-mailaren jarraipena egitea.

c) Honako hauen ezarpena sustatzea eta kudeatzea Nafarroan: energia berriztagarria ekoizteko, auto-kontsumorako eta sorkuntza banaturako sistemak, energia biltegitatu edo kudeatzeko sistemak, ibilgailu elektrikoak kargatzeko sistemak, mugikortasun jasangarriko proiektuak eta antzeko beste edozein.

d) Bere helburuak betetzeko, zuzeneko inbertsioak egitea edo maileguz, abalen eta bestelako tresnen bidez laguntzea entitate publikoek egindako inbertsioei. Entitate pribatuen inbertsioei laguntza emateko eta horietan parte hartzeko, berriz, irabazi-asmorik gabeko entitateek egindakoak lehenetsiko dira, energia komunitateek egiten dituztenak halakotzat hartuta.

e) Argindarra lehia askearen araubidean merkaturatzeko xedearrekin, merkataritza sozietateak sortu edo horietan parte hartzea; auto-kontsumoko instalazioen energia soberakinaren salmenta kudeatzea; kontsumoari buruzko datuak bildu eta aztertzea; eta parte hartzea eskariaren kudeaketa adimendunean eta sistema elektrikoaren beste zerbitzu batzuetan.

f) Bere ekimenez edo sektore pribatuko beste enpresa batzuekin elkarlanean, energiaren arloan Nafarroarako aitzindari edo estrategikoak diren proiektuak garatzea.

g) Energiaren aurrezpena eta efizientzia eta haren kudeaketa adimenduna bultzatzeko jarduketak proposatu, bere egin eta gauzatzea; energia berriztagarrien erabilera bultzatzea auto-kontsumorako eta sorkuntza banaturako, modu jasangarrian kudeatuz baliabideak, tokikoak eta berriztagarriak; eta garraibide elektrikoak eta zero isurketako ibilgailuen erabilera sustatzea.

h) Neurriak ezarri eta kudeatzea, finantzabiderako sistema berritzaileak barne, honako hauek sustatzeko: energia aurrezpena eta efizientzia; energiaren kudeaketa adimenduna; garraibide elektrikoak; energia berriztagarriak; hiri adimendunak –smartcities direlakoak– eta smartgrid izenekoak, energiaren aurrezpenerako; energiaren sorkuntza banatua; energiaren banaketa-sare adimendunak; eta isurketen gutxitzea.

i) Azterketak eta txosten teknikoak egitea energiaren arloko teknologia eta sistemei buruz, ener-

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Fecha	24/01/2025 08:41:58
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	NEREA MARTIN CESTAO (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Página	4/32



giaren kontsumoko ohiturei buruz eta sektore ekonomikoen ahuleziei buruz.

j) Nafarroako energia-azpiegituren planen diseinuan eta jarraipenean laguntzea.

k) Agentziak sustatzen dituen proiektu energetikoak irekitzea herritarrek parte har dezaten, bai diseinuan bai finantzaketan.

l) Tokiko energia komunitateak bultzatzea, aholkularitza eman ez halakoak eratzeko interesa duten pertsoneri eta erakundeei.

m) Foru Komunitateko, Espainiako edo nazioarteko proiektu lehiakorretan parte hartzea, Agentziaren eginkizun eta helburuekin lotutako ekimenak abian jartzeko.

n) Energiaren arloko aholkularitza eta laguntza teknikoak ematea foru administrazio publikoari eta toki administrazio publikoari, eta prestakuntza espezializatua profesionali.

o) Laguntza teknikoak ematea energiaren kudeatzaileei eta Nafarroako administrazio publikoetako kontratazio unitateei, energiaren erabilera arrazionalizatzeko programak egitea eta sektore publikoan baliabide energetiko berriztagarrien aprobetxamendua sustatzea.

p) Laguntza teknikoak eskaintzea toki erakundeei klimarako eta energia jasangarriko ekintza planak idatzi, gauzatu eta berrikusteko.

q) Jarduketa eta inbertsio publikoak eta pribatuak sustatzea, karbono dioxidoaren xurgapenaren arloan, karbono-hustubideen babes eta hobekuntzaren arloan, eta klima-aldaketarako egokitzapenaren arloan.

r) Jarduketa eta inbertsio publiko eta pribatuak sustatzea, energia-trantsizioari eta klima-aldaketaren kontrako borrokari buruzko I+G+b proiektuak egiteko.

s) Herritarrentzako informazio eta sentsibilizatzeko kanpainak egitea, energiaren demokratizazioa bultzatzeko eta herritarrei energiaren arloko aholkuak eta tresnak emateko, prestakuntzakoak nahiz teknikoak.

t) Bultzatzea profesionalen prestakuntza energiaren eta klima-aldaketaren gaitan.

u) Bere estatutuetan jasotzen den beste edozein jarduera, eta bere helburuak osotara lortzeko beharrezkoak diren beste guztiak.

Lehen xedapen gehigarria. Energia-trantsizioarako politikak betetzeko behar diren datu estatistikoaren tratamendua.

Botere publikoek, herritarrek, enpresek, irabazi-asmorik gabeko erakundeek eta enpresa elkar-teekek lankidetzan aritu beharko dute Agentziarekin, eta energia-trantsizioarako politikak betetzeko beharrezkoak diren datu estatistikoak eman beharko dizkiote, ezartzen diren formatuetan eta konfidentzialtasun irizpideekin bat. Posible denean, pertsoneri buruzko estatistiketan sexuari dagokion aldagaia ere sartuko da, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearen 19. artikularekin bat.

Bigarren xedapen gehigarria. Lankidetzahitzarmenak.

Administrazio publikoek energia berriztagarria sortzeko, energia biltegitatzeko edo karbonoa xurgatzeko proiektuekin lotuta izenpetzen dituzten lankidetzahitzarmenek hogeita hamar urteko indarraldia izanen dute gehienez.

Hirugarren xedapen gehigarria. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren kontrola.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa sortzen duen ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legearen 2. artikuluko 1.b) eta 2. apartatuetan ezartzen diren eginkizunak betetzen ahalko ditu Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentziari dagokionez.

Laugarren xedapen gehigarria. Estatutuen onspena.

Nafarroako Gobernuak, foru lege honek indarra hartzen duenetik urtebeteko epean, Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentziaren hasierako jarduketa plana eta estatutuak onetsiko ditu, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legean ezarritakoarekin bat.

Azken xedapenetako lehena. Arauak emateko gaikuntza.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren arauak eman ditzan.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Fecha	24/01/2025 08:41:58
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	NEREA MARTIN CESTAO (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Página	5/32



E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/ITP-00003. Interpelazioa, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza-politikari buruzkoa

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako interpelazioa, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza-politikari buruzkoa.
2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.
3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, hona-

ko interpelazio hau aurkezten du, Nafarroako Gobernu bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Nafarroako hizkuntza berekietako bat da euskara, baina, zoritxarrez, arma politiko modura erabili izan da alderdien arteko liskarretan.

Gorde beharreko kultur ondarea da inondik ere, eta egunero komunikatzeko ere balio die nafar asko eta askori. Gure erkidegoa ez litzateke ulertuko euskararik gabe, ezta euskara Nafarroarik gabe ere.

Hortaz, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikaren arloko politika orokorrari buruzko interpelazio hau egiten diogu Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariari.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Fecha	24/01/2025 08:41:58
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	NEREA MARTIN CESTAO (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Página	6/32



11-25/ITP-00004. Interpelazioa, arrazoi sozialak direla-eta Gobernuak kontratazio publikoaren arloan darabilen politika orokorrari buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako interpelazioa, arrazoi sozialak direla-eta Gobernuak kontratazio publikoaren arloan darabilen politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

2023ko irailaren 20an, Alderdi Popularretik Kontuen Ganberari eskatu genion fiskalizazio-txosten bat egin zezala jakiteko noraino betetzen den Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 36. artikulua: "Arrazoi azterketa eta betetzearen arloan aitzina egiteko gomendioak".

Kontuen Ganberak azterketa hori jaso du egin berri duen "Nafarroako Kontu Orokorrak, 2023ko ekitaldia" izeneko txostenean. Txostenean jasotzen diren ondorioak ikusita egiaztatzen da Nafarroako Gobernuak behin eta berriro urratu duela enplegu-zentro berezietako eta laneratze-enpresekiko kontratu-erreserba, bai eta hori betetze aldera egindako gomendioak ere.

Arrazoi sozialak direla-eta Gobernuak kontratazio publikoaren arloan darabilen politika orokorrari buruzko interpelazioa egiten diogu Nafarroako Gobernuari.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Fecha	24/01/2025 08:41:58
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	NEREA MARTIN CESTAO (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Página	7/32



11-24/MOC-00133. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Errenta Bermatua sendotu, indartu eta igo dezan, baitezpada-ko gizarte-eskubide bat den aldetik, halako moduan non bermatu eginen baita errenta hori beharrezkoa duten pertsona guztiek jasoko dutela eta zenbatekoak familien beharizantetara egokituko baitira

ESKUBIDE SOZIALETAKO, EKONOMIA SOZIALEKO ETA ENPLEGUKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

2025eko urtarrilaren 20an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordean izapidetu dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Errenta Bermatua sendotu, indartu eta igo dezan, baitezpadako gizarte-eskubide bat den aldetik, halako moduan non bermatu eginen

baita errenta hori beharrezkoa duten pertsona guztiek jasoko dutela eta zenbatekoak familien beharizantetara egokituko baitira. Mozioa 2024ko urriaren 25eko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00002. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita beharrezkoak diren neurriak har edo susta ditzan, zertarako eta udalek sarbide librerako deitzen diren lanpostuen gehienez ere % 20 erreserbatu ahal izateko Indar Armatuetan zerbitzuan bost urte baino gehiago eman dituzten tropako eta marineltzako militar profesionalentzat, bete gabeko plaza erreserbatuak deialdiko gainontzekoei gehituta, Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legean ezarritako baldintza guztiak beteta

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita beharrezkoak diren neurriak har edo susta ditzan, zertarako eta udalek sarbide librerako deitzen diren lanpostuen gehienez ere % 20 erreserbatu ahal izateko Indar Armatuetan zerbitzuan bost urte baino gehiago eman dituzten tropako eta marineltzako militar profesionalentzat, bete gabeko plaza erreserbatuak

deialdiko gainontzekoei gehituta, Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legean ezarritako baldintza guztiak beteta.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Fecha	24/01/2025 08:41:58
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	NEREA MARTIN CESTAO (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Página	8/32



MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen Emilio Jiménez Román jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 219. artikuluan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du 2025eko urtarrilaren 23ko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

Militarren lanbide nekaziazin eta zintzoan agerian jarri ohi da gure soldaduek eta marinelek Espainiari zerbitzu emateko duten borondatea, bai eta Indar Armatuak agintzen dieten misioa betetzeari erakusten duten nekaziazintasuna eta erabakitutasuna ere, horretarako aurre egin beharreko zailtasunak zailtasun.

Espainiaren defentsa militarra da armadaren zioa, eta bere misioa da Aberriaren burujabetza eta independentzia bermatzea eta lurralde-osotasuna eta Konstituzioaren araberrako ordenamendua zaintzea.

Nazioaren defentsa espainiar gutzien betebeharra da. Indar armatuak haren funtsezko osagaia dira, Aberriaren segurtasuna dela-eta etengabe alertan baitaude.

Militarren lanbidea bizitzeko beharrezkoa da bokazio aratza edukitzea, zeina diziplinaren eta pairamenaren azturen bidez garatuko baita, bokazioak berak eskatzen duen armen karrerarekiko entrega-maila handia lortu arte.

Errege Ordenantzaren 27. artikulua araberak, militarrek gogoan hartuko du balioa, obediencia-azkartasuna eta zerbitzu-dotasun handia ezin izanen direla sekula faltatu, nahiz eta sakrifizioak eta are bizitza bera ere exijitu aberriaren defentsan.

Diziplina, balioa, pairamena, austeritatea, ardua eta sakrifizioa bezalako balioak eta printzipioak funtsezkoak dira gure soldaduengan.

Garai honetan, soldaduak ikusten ditugu geostrategiak, nazioarteko politikak eta gerra-egoerak eskatzen duten zenbait toki eta herrialdetan, larrialdi-egoeretan, hondamendi naturaletan, elurra nahiz lokatza kentzen, janaria banatzen, COVIDaren aurkako borrokan laguntzen eta ezohiko inguruabarrek hala eskatzen dutenean (DANA, kasu).

Gure militarrek Espainia defenditzeko eskubide eta beharra betetzen dute, beharrezkoa balitz are bizitza emanda ere, eta bermatu egin behar da ohore handia eta merezimendu bat izan dadila, dakartzan sakrifizioak direla-eta, Indar Armatuetan Aberria zerbitzatzea.

Legedi nazionalak aurreikusi du plazak erreserbatzea Guardia Zibilean, Polizia Kidego Nazionalean eta Aduana-zaintzako Zerbitzuan edo Armadan emandako denbora errekonozitzea administrazio publikoetan sartzeko merezimendu gisa.

Halatan, Tropari eta Marineltzari buruzko apirilaren 24ko 8/2006 Legeak ezartzen du plazak erreserbatuko direla Guardia Zibilean, Polizia Kidego Nazionalean eta Aduana-zaintzako Zerbitzuan sartzeko deialdietan. Kidego eta zerbitzu horiek beren xedapenak egokitu dituzte hautapen-prozesuetan gutxienez ere % 40 eta gehienez ere % 50 erreserbatzeko Guardia Zibilean, gutxienez ere % 20 Polizia Kidego Nazionalean eta gutxienez ere % 20 eta gehienez ere % 60 Aduana-zaintzako Zerbitzuan (20. artikulua 4., 5. eta 6. apartatuak).

Lege horrek berak ezartzen du Defentsa Ministerioak lankidetzak-akordioak sustatuko dituela udaltzain izateko deialdietan plazak erreserbatu daitezkeen zerbitzuan bost urte baino gehiago eman dituzten tropako eta marineltzako militar profesionalentzat (20.2 artikulua); Karrera Militarri buruzko 39/2007 Legeak, berriz, osagarriko militarrei ere luzatzen die plaza-erreserba hori (13. xedapen gehigarria).

Tropari eta Marineltzari buruzko apirilaren 24ko 8/2006 Legeak orobat ezartzen du hautapen-prozesuetan merezimendutzat hartuko dela Indar Armatuak militar gisan emandako zerbitzu-denbora (20.1 eta 2 art.).

Harik eta, ministerio eskudunaren bitartez, Nazioko Gobernuak defentsa, segurtasun, polizia eta espetxe arloko eskumenak osorik berreskuratu arte, administrazio erregionalei dagokie gaitzea merezimendua izan dadila gure militarrek Indar Armatuak emandako zerbitzua, Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera; izan ere, autonomia-erkidegoei dagokie ezartzea zer arau-esparruri lotu beharko zaizkion udaltzaingoen erregelamenduak eta udaltzaingoen lanbide-prestakuntzaren koordinazioa, horretarako Aginteen Prestakuntzako eta Oinarrizko Prestakuntzako Eskolak sortuta.

Foruaren Hobekuntzaren 51. artikulua ezartzen duenez, Nafarroari dagokio Foruzaingoari buruzko araubidea ezartzea eta udaltzaingoen koordinazioa, udal edo kontzeju bakoitzaren agintariekiko menpekotasun deusetan ukatu gabe.

Koordinazioa ez da kudeaketa administratibora mugatzen, Nafarroako udaltzaingoen jardura normala ere hartzen baitu bere baitan.

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Fecha	24/01/2025 08:41:58
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	NEREA MARTIN CESTAO (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Página	9/32



Nafarroako polizien dualtasuna: bata Nafarroako Gobernuaren menpekoa eta besteak toki-entitateen menpekoak, baina jarduketa-printzipio orok bereberekin.

Nafarroan, Nafarroako Polizieiei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legeak ez du aukerarik ematen plazak erreserbatzeko zerbitzuan bost urte baino gehiago eman duten tropako militarrentzat; hortaz, plaza-erreserba hori ahalbidetzeko hitzarmen bat egite aldera ATME elkarteak edo Defentsa Ministerioak udalen aitzinean egindako ahalegin orok jasotzen duen erantzuna da Udaltzaingoen Koordinazioari buruzko legeak ez duela halakorik baimentzen.

Zenbait erkidegok (esate baterako, Aragoi, Gaztela-Mantxa, Gaztela eta Leon, Errioxa, Madril, Murtzia, Ceuta eta Melilla hiri autonomoak eta, iaz, Andaluzia) neurri hori jasotzen dute jada beren lege autonomikoetan, erreserba hori ahalbidetzeko.

718/2023 Foru Dekretuak Nafarroako Polizia Kidegoetako langileei buruzko erregelamendua onetsi zuen. Sartzeko deialdiak Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko Foru Legean, erregelamenduan eta kontseilari eskudunak eman litzakeen garen-oinarrietan ezarritakoari lotuko zaizkio. Nafarroako polizia kidegoetan funtzionario gisa sartzeko, oposizio edo oposizio-lehiaketa bidezko deialdi publikoa eginen da, publikotasun, merezimendu eta gaitasun irizpideei jarraituz.

Mozio honen bidez bilatzen duguna da kasuko aldaketak egitea Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzko araudian, halako moduan non udaltzainen kidegoan sartzeko deialdietan, Polizia kategoriaren bidez, erreserba bat ezarri ahal izanen baita, sarbide liberako deitutako plazan % 20koa gehienez ere, Indar Armatueta zerbitzuan bost urte baino gehiago eman dituzten osagarriko militarrentzat eta tropako eta marineltzako militar profesionalentzat, bete gabeko plaza erreserbatuak deialdiko gainontzekoei gehituta, Nafarroako Polizieiei buruzko Foru Legean ezarritako baldintza guztiak beteta.

Indar Armatuak, Guardia Zibilak eta Polizia Kidego Nazionalak emandako formakuntzak, trebakuntzak eta ikaskuntzak dakarren balio ordainezina gogoan, orobat aldatu behar dira Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko Foru Legea eta Segurtasun Eskolaren antolamendua eta funtzionamenduari

buruzko Erregelamendua onesten duen Foru Dekretua, poliziaren, segurtasunaren nahiz larrialdien arloko prestakuntzari buruzko lankidetzatza instituzionala sustatzearen Indar Armatueta, Guardia Zibileko eta Polizia Kidego Nazionalako eskolekin; bereziki, Poliziaren Eskola Nazionalarekin eta Poliziaren Eguneratze eta Espezializazio Zentroarekin.

Alegia, Espainiak ez ditu abandonatu behar bere bizitzako urterik onenak Armadan Aberriaren zerbitzuan eman dituztenak; hortaz, hala Nazioak nola gure erregioak bermatu egin behar dute Indar Armatueta Aberria zerbitzatzeko ohorea eta emandako denbora, horrek dakartzan sakrifizioekin, merezimendu eta errekonozimendu bat izatea, baita lan-arloan ere.

Halaber, gure Indar Armatuak, Guardia Zibilak eta Polizia Kidego Nazionalak segurtasunaren eta larrialdien arloan emandako prestakuntza baloratu behar da.

Horregatik guztiagatik, Vox Nafarroa foru parlamentariaren elkarteak honako erabaki-proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du hartu beharreko neurriak har edo susta ditzan, ahalbidetzeko:

1. Udalak gaituta egotea sarbide liberako deitzen diren lanpostuen gehienez ere % 20 erreserbatu ahal izateko Indar Armatueta zerbitzuan bost urte baino gehiago eman dituzten osagarriko militarrentzat eta tropako eta marineltzako militar profesionalentzat, bete gabeko plaza erreserbatuak deialdiko gainontzekoei gehituta, Nafarroako Polizieiei buruzko Foru Legean ezarritako baldintza guztiak beteta.

2. Militarrek Indar Armatueta emandako zerbitzu-denbora merezimendu gisa har dadin udaltzaingotetan sartzeko deialdietan eta hautapen-sistemetan.

3. Nafarroako Segurtasun Eskolak poliziaren, segurtasunaren nahiz larrialdien arloko prestakuntzari buruzko lankidetzatza instituzionala susta dezan Indar Armatueta, Guardia Zibileko eta Polizia Kidego Nazionalako eskolekin.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Fecha	24/01/2025 08:41:58
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	NEREA MARTIN CESTAO (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Página	10/32



11-25/MOC-00003. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu "España en libertad" izeneko ekimenarekin, 2025ean zehar diktadura gainditu izanaren 50. urteurrena ospatzeko, eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitu bere lan-plangintza ezartzen jarrai dezan, Espainiako Gobernuarekin lankidetzan, gure demokrazia eta eskubide eta askatasunen konstituzio-erregimena sendotzeko

MARÍA INMACULADA JURÍO MACAYA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Inmaculada Jurío Macaya andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu "España en libertad" izeneko ekimenarekin, 2025ean zehar diktadura gainditu izanaren 50. urteurrena ospatzeko, eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitu bere lan-plangintza ezartzen jarrai dezan, Espainiako Gobernuarekin lankidetzan, gure demokrazia eta eskubide eta askatasunen konstituzio-erregimena sendotzeko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Inmaculada Jurío Macaya andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

2025ean 50 urte beteko dira Francisco Franco diktadorea hil zenetik, ia lau hamarkadaz Espainian erregimen autoritarioa anker eta askatasunen suntsizalea ezarri zuena, gobernu konstituzional demokratiko eta zilegi baten aurkako estatu kolpearen eta haren ondorioz piztutako gerra zibilaren ondoren. Nafarroan ez zen gerra frontierik izan, baina hamarkadatan pairatu genuen indarkeria frankista, zeinak sakon erasan baitzituen gure erkidegoko familiak. Horrenbestez, bizikidetzaren aurkako eraso bat izan zen eta kasu askotan oraindik ere irekita dirauten zauriak eragin zituen.

Hori dela eta, Espainiako Gobernuak ehun ekitalditik gora sustatuko ditu 2025. urte honetan, "Espainia askatasunean" goiburuarekin, gogoratzeko 50 urte beteko direla gure herrialdea askatasunean bizi denetik. Ekitaldi horien xedea da demokraziako mende erdi honetan lortutako eraldaketa handia balioan jartzea eta hori ahalbidetu duten pertsona eta talde guztiak omentzea. Izan ere, urte horietan gure herrialdea diktadura txiro eta isolatu bat izatetik munduko demokrazia osoeneko bat izatera pasa da. Ekonomia moderno, ireki eta jasangarria, gizarte tolerantia eta inklusiboa eta nazioarteko potentzia, aldeaniztasunarekin, europazaletasunarekin eta bakearekin konprometitua.

Ekimen hori behar-beharrezkoa da gaur egun, diktadura aldarrikatzen duten diskurtsoek demokraziari eraso egiten dioten honetan. Horrenbestez, inboluzio-arriskua benetakoa da, eta memoriaren, elkarbizitzaren, desberdinarekiko errespetuaren eta aniztasunaren aitorpenaren zentzua galbideratzen denean hazten da. Izan ere, gezur historikoak betikotzen direnean ez dago elkarbizitarik.

Nafarroan, memoria historiko eta demokratikoa- ren arloan, askotariko ekimen eta foru arauak sustatu eta aplikatzen dira, eta horiek lagungarriak izan dira eta dira gure erkidegoko herritarren artean konzientzia demokratikoa eta askatasunei buruzkoa indartzen.

Azaldutako guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak bat egiten du "España en libertad" izeneko ekimenarekin, 2025ean zehar diktadura gainditu eta gure demokrazia ezarri izanaren 50. urteurrena ospatzeko, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du arlo garrantzitsu horretan bere lan-plangintza ezartzen jarrai dezan, Espainiako Gobernuarekin lankidetzan, gure demokrazia eta eskubide eta askatasunen konstituzio-erregimena sendotzeko.

Iruñean, 2025eko abenduaren 14an

Foru parlamentaria: María Inmaculada Jurío Macaya

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Fecha	24/01/2025 08:41:58
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	NEREA MARTIN CESTAO (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Página	11/32



F saila:
GALDERAK**11-25/POR-00020. Galdera, Rozalejoko markesaren jauregia egokitzeko obrei buruzkoa****MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako galdera, Rozalejoko markesaren jauregia egokitzeko obrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilari Ana Olo Hualde andreak:

Rozalejoko markesaren jauregian paratuko da Nafarroako Memoriaren Institutua, zeina baita Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta

Euskarako Departamentuak 2015eko legegintzalditik daukan helburu nagusietako bat. Urteetako isilaldi eta desmemoria interesatuaren ostean, gure erkidegoa gai izan zen inertzia horiek hausteko politika publikoak ezartzeko.

Memoria demokratikoa berreskuratzea ez litzateke egon beharko eratzen diren gobernu-moten baitan, zeren eta memoria denon ondarea baita; zoritxarrez, ordea, ez da hori gure inguruko zenbait erkidegotan ikusten ari garena, horietan atzerako urratsak egiten ari baitira memoriari euskarri juridikoa ematen dioten legeak indargabetuta, edo lege horiek modu eufemistikoan konkordia-lege izendatzen dituztenekin ordeztuta.


Hori dela-eta, uste dugu sekula baino garrantzitsuagoa dela politika horietan sakontzea, egia, justizia eta erreparazioa aldarrikatzeko; izan ere, memoria ez da iraganeko kontu bat, ezpada orainaldikoa eta etorkizuneko.

Horrenbestez, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariari galdetzen diogu ea zertan diren Rozalejoko markesaren jauregia egokitzeko obrak.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Fecha	24/01/2025 08:41:58
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	NEREA MARTIN CESTAO (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Página	12/32



11-25/POR-00021. Galdera, Nafarroako Bizikidetzari buruzko II. Plana abian jartzeari buruzkoa

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako galdera, Nafarroako Bizikidetzari buruzko II. Plana abian jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilari Ana Olo Hualde andreak:

Bizikidetzaren mugari demokratiko eta funtsezkoetako bat da gurea bezalako erkidegoetan, azken hamarkada hauetan indarkeria ezberdinen erasoak pairatu izan baitugu. Garai nahasiak bizi ditugu, ordea, non hainbat esparru sozial eta poli-

tikotatik desberdina denarekiko intolerantzia eta, are, gorrotoa ere funtsik gabe sustatzen den.

Guk, berriz, bake- eta bizikidetzaren balioetako hezkuntzaren arloak indartzen jarraitu behar dugu, giza eskubideak sustatzen eta Nafarroako gizarteak iraganarekin aldera daitekeen kontaktuzuna eta memoria partekatua eraikitzen parte har dezan bultzatzen. Aitzina egin behar dugu, orobat, indarkeria terroristaren ondorioei buruzko kontaktuzun ez baztertzaila egiten, terrorismoaren biktimen testigantzak, bizipenak eta gogoetak biltzen, ezagutarazpen-modu gisa ez ezik, baita indarkeria, isiltasuna eta, batzuetan, gizartearen zati handi baten ahanztura jasan duten pertsonen hurbiltasun- eta enpatia-modu gisa ere.

Horrek guztiak zeresan handia zeukan Bizikidetzari buruzko I. Planean, 2021etik 2024ra bitarteko aldia hartzen zuena. Hori dela-eta, iaz, urte amaieran, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak iragarri zuen abian dela Bizikidetzari buruzko II. Plana garatzeko prozesua.

Hori dela-eta, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariari galdetzen diogu ea zeintzuk izanen diren Nafarroako Bizikidetzari buruzko II. Plana abian jartzeko prozedura eta faseak.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Fecha	24/01/2025 08:41:58
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	NEREA MARTIN CESTAO (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Página	13/32



11-25/POR-00022. Galdera, proba diagnostikoak egiteko batez beste itxaron beharreko denborari eta paziente-kopurua argitaratzeari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, proba diagnostikoak egiten batez beste itxaron beharreko denborari eta paziente-kopurua argitaratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Osasun Departamentuak noiz emanen du, Nafarroako Gobernuaren webgunearen bidez eta herritarren eskura dauden bestelako komunikabide ofizial batzuen bidez, proba diagnostikoak egiteko batez beste itxaron beharreko denborari eta paziente-kopuruari buruzko hileroko informazioa?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-25/PES-00007. Galdera, oinarrizko osasun-laguntzako egiturazko erizain-lanpostuak kentzeari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, oinarrizko osasun-laguntzako egiturazko erizain-lanpostuak kentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

COVID-19aren ondoren sortu ziren oinarrizko osasun-laguntzako erizainen egiturazko 44 lanpostuetatik zenbat kendu dira Nafarroako osasun-etxeetan? Zeintzuk izan dira horretarako arrazoiak eta zer irizpide baliatu da osasun-etxe bakoitzean zer lanpostu kendu erabakitzeo?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Fecha	24/01/2025 08:41:58
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	NEREA MARTIN CESTAO (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Página	14/32



11-25/PES-00008. Galdera, Nafarroako hazkunde ekonomikoa bultzatzera bideratutako diagnosirako, ekintza-planerako eta ebaluazioaren jarraipenerako laguntza tekniko kontratatzeari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Nafarroako hazkunde ekonomikoa bultzatzera bideratutako diagnosirako, ekintza-planerako eta ebaluazioaren jarraipenerako laguntza tekniko kontratatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluko agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Inbertsio Institutuak erabaki al du zer formula baliatuko duen Nafarroako hazkunde ekonomikoa bultzatzera bideratutako diagnosirako, ekintza-planerako eta ebaluazioaren jarraipenerako laguntza tekniko kontratatzeke? Izan ere, hasierako lizitazioa eman gabe gelditu da.

Prozedura negoziatuaren hautua egin baldin bada, hasi al da jada? zer enpresarekin eta zer baldintzatan?

Beste lizitazio bat egitea erabaki baldin bada, noiz egitea aurreikusten da?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Fecha	24/01/2025 08:41:58
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	NEREA MARTIN CESTAO (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Página	15/32



11-25/PES-00009. Galdera, enpresek Nafarroan sortzen dituzten enpleguei buruzkoa

ANA MARÍA ELIZALDE URMENETA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Elizalde Urmeneta andreak egindako galdera, enpresek Nafarroan sortzen dituzten enpleguei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Ana Elizalde Urmeneta andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren bazean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Enpresen fiskalitateari buruzko galdera idatzi bati erantzutean, Nafarroako Gobernuak honako taula hau igorri dit:

Nafarroako Zerga Ogasuna

		TG
Orokorra	>20 M vol. eragiketak	% 28
Enpresa txiki eta ertainak	>1 M-<20 M vol. eragiketak	% 23
Mikroenpresak	<1 M vol. eragiketak	% 19

Nafarroan enpresek zenbat enplegu sortzen dituzte Orokorra, Enpresa txiki eta ertainak eta Mikroenpresak gisa bereizitako parametro bakoitzean?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Ana Elizalde Urmeneta

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Fecha	24/01/2025 08:41:58
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	NEREA MARTIN CESTAO (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Página	16/32



11-25/PES-00010. Galdera, jakiteko ea energia-kalifikazioaren ziurtagiria eduki beharra betetzen ote den

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, jakiteko ea energia-kalifikazioaren ziurtagiria eduki beharra betetzen ote den.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2024ko abenduaren 31n, bizitegi erabilerako eta hirugarren sektoreko Nafarroako eraikin guztiek izan behar zuten energia-kalifikazioaren ziurtagiria, Nafarroako ziurtagirien Erregistro publikoan erregistratua. Zenbatek betetzen zuten hori?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/PES-00011. Galdera, jakiteko ea zer neurri hartu diren Nafarroako etxebizitza kolektiboko eraikinek 2030eko urtarrilaren 1etik aitzina B mailako edo goragoko energia-kalifikazioa izan dezaten

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, jakiteko ea zer neurri hartu diren Nafarroako etxebizitza kolektiboko eraikinek 2030eko urtarrilaren 1etik aitzina B mailako edo goragoko energia-kalifikazioa izan dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias


GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak zer bitarteko ezarriko du 2030eko urtarrilaren 1etik aurrera Nafarroako bizitegi kolektiboko eraikinek B mailako edo goragoko kalifikazio energetikoa izan dezaten?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Fecha	24/01/2025 08:41:58	
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original	
Firmado por	NEREA MARTIN CESTAO (Firma incrustada)			
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Página	17/32	

11-25/PES-00012. Galdera, klima-aldaketan eta trantsizio energetikoan genero-ikuspegia betetzeari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, klima-aldaketan eta trantsizio energetikoan genero-ikuspegia betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zer ari da egiten Nafarroako Gobernuak klima-aldaketan eta trantsizio energetikoan genero-ikuspegia bete dadin?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/PES-00013. Galdera, errepideak zeharkatzen dituzten faunarendako pasabideetarako neurriei buruzkoa

FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, errepideak zeharkatzen dituzten faunarendako pasabideetarako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako errepideetan faunarekin dauden istripuen tasa handia dela-eta, zer neurri ari dira hartzen Lurralde Kohesiorako Departamentua eta Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentua istripu horiek minimizatzeko, Nafarroako zenbait errepidetan dauden faunarendako pasabideak direla-eta Ehiza Kudeaketarako Atalak emandako informazioa ikusita?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Fecha	24/01/2025 08:41:58
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	NEREA MARTIN CESTAO (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Página	18/32



11-25/PES-00014. Galdera, Nasuvinsak Tafallako Manero Enearen orubean etxebizitzak egiteari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Nasuvinsak Tafallako Manero Enearen orubean etxebizitzak egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique honako galdera hauek aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Nasuvinsak jabetzan zeukan eraikin bat Tafallako Santa María kalean, Andre María elizaren ondoran, Manero Enea izenez ezagunagoa zena. 2005ean, Nasuvinsak eraikin hori bota zuen, ondoren etxebizitzak eraikitzeko, nahiz eta zegokiona zaharberritzea izan; izan ere, alde zaharren parte zen, eta mantentzea merezi zuen harriz egina baitzegoen, edo, behintzat, harri guztia errekuperatzea.

la hogeit urte joan dira ordutik, eta Nasuvinsak ez du inolako etxebizitzarik eraiki eraiketaren ostean hutsik gelditu zen orubean. 2022ko maiatzean, Tafallako Udalarekin egindako bilera batean, Nasuvinsak berretsi zuen etxebizitzak eraikiko zituela hiriaren alde zaharrean; zehazki, 8 etxebizitza eraikitzeko proiektu bat zegoela.

2021eko azaroaren 26an, orduan Lurra Antolamenduko kontseilari zenak Navarra Social Housing planaren bigarren fasea iragarri zuen Tafallan, zeinaren arabera Nasuvinsak alokairuko babes ofizialeko 34 etxebizitza sustatuko baitzuten etxebizitzako sozietate publikoak hirian daukan lurzati batean, kirolaldetik gertu.

Hori dela-eta, honako hau galdetzen dut:

1. Tafallako Santa María kaleko Manero Enea eraitsi zenetik ia 20 urte igaro eta gero, orube ia osoaren jabe den Nasuvinsak ez du etxebizitzarik eraiki. Zergatik?

2. Zer arrazoi izan du Nasuvinsak (administratiboa, merkatukoa nahiz ekonomikoa) eraikina eraitsi zenean etxebizitzak eraikitzeko hartutako konpromisoa 20 urte hauetan ez betetzeko?

3. 2022an Tafallako Udalaren ordezkariekin izandako bileran, Nasuvinsako arduradunek iragarri zuten 8 etxebizitza eraikiko zituztela orube horretan, baina hiru urte joan dira eta ez da proiektu horretarako obra-lizentziarik eskatu. Zergatik? Etxebizitzako enpresa publikoak zer dela-eta ez ditu etxebizitza horiek eraiki?

4. Manero Enea zenaren orubean etxebizitza horiek ez eraikitzea lotuta al dago Nasuvinsak Tafallan eraiki nahi dituen alokairuko babes ofizialeko 34 etxebizitza horiek eraikitzearekin? Proiektu horrek lehentasuna al dauka Manero Eneko proiektuaren aldean?

5. Nasuvinsak Tafallako bi proiektu horiek egi-tea aurreikusten al du? Noizko?

6. Jabeek Tafallako alde zaharrean salgai jarritako orubeak edo aurrigoan dauden etxebizitzak erosteko eskaintzarik jaso al du Nasuvinsak? Zenbat izan dira? Zer erantzun eman zaie? Horietakoren bat erosteko prozesua abian al da?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Fecha	24/01/2025 08:41:58
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	NEREA MARTIN CESTAO (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Página	19/32



11-25/PES-00015. Galdera, AHTaren Nafarroako trazadura zehazteko egin beharreko laginetan izandako sabotajeen ikerketari buruzkoa

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, AHTaren Nafarroako trazadura zehazteko egin beharreko laginetan izandako sabotajeen ikerketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Gobernuaren Nafarroako ordezkari Echeverría andreak gaur prentsaurreko batean adierazi du

Guardia Zibilean ez dagoela jasota inolako salaketa "ofizialik" AHTaren Nafarroako trazadura erabakitze beharrezkoak diren laginetako sabotajeak direla-eta. Adierazpen horiek bat datoz arrazoi beragatik Foruzaingoan jarritako salaketak direla-eta Alderdi Sozialistako kideek egindako adierazpenekin.

Halere, Gobernuaren Nafarroako ordezkariak honako hau adierazi zuen prentsaurreko horretan berean: "alderdi batzuetan bai egin ahal izan dira laginak, eta orain arte laginik egin ezin izan den alderdietan egin beharreko zuzemenak eginen dira ministerioak konpromisoa bete ahal izan dezan, hau da, lanak egin ahal izan ditzan erabakia hartzeko irizpide tekniko bat edukitzeko". Adierazpen horietatik argi eta garbi ondorioztatzen da kanpo-eragozpenen bat egon dela laginak alderdiren batean egiteko.

Sabotaje-ekintzak gertatu direla iradokitzen duten albisteak ikusita, Nafarroako Gobernuak abiarazi al du edo abiarazi nahi al du ofizioz inolako ikerketarik ekintza horiek direla-eta, jakin ahal izan dadin non eta noiz gertatu diren eta ustez nork egin dituen?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Fecha	24/01/2025 08:41:58
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	NEREA MARTIN CESTAO (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Página	20/32



11-25/PES-00016. Galdera, Prodigioso Volcán enpresak egindako ekintza estrategikoen emaitzen eta inaktuaren ebaluazioa bidaltzeari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Prodigioso Volcán enpresak egindako ekintza estrategikoen emaitzen eta inaktuaren ebaluazioa bidaltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Prodigioso Volcán enpresak noiz bidali zuen egindako ekintza estrategikoen emaitzen eta inaktuaren ebaluazioa, dagozkien material entregariekin?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/PES-00017. Galdera, Prodigioso Volcán enpresak Nafarroa marka sustatzeko bere planean jasotako ekintza estrategikoen proposamenak bete izanaren akreditazioa bidaltzeari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Prodigioso Volcán enpresak Nafarroa marka sustatzeko bere planean jasotako ekintza estrategikoen proposamenak bete izanaren akreditazioa bidaltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Prodigioso Volcán enpresak zer egunetan bidali zuen Nafarroa marka sustatzeko bere planean jasotako ekintza estrategikoen proposamenak bete izanaren akreditazioa?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Fecha	24/01/2025 08:41:58
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	NEREA MARTIN CESTAO (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Página	21/32



11-25/PES-00018. Galdera, “Coyuntura Ambiental de Navarra” aldizkariak argitaratzeari buruzkoa

FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, “Coyuntura Ambiental de Navarra” aldizkariak argitaratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuaren Medio Ambiente. Observatorio Ambiental de Navarra-navarra.es webgunean Nafarroako ingurumen-koiunturari buruz argitaratuta dagoen azken buletina zergatik da 2023ko apiriletik ekainera bitarteko hiru hilera? Izan ere, horren helburua da jendaurrean ingurumenari buruzko intereseko informazioa paratzea, modu ikusgarri eta dibulgatzailean, erreferentziazkoa izan dadin geroago azterlanak egiteko nahiz ingurumenaren gaineko hainbat alderdiri buruz informaturik egoteko.

Argitaratu ezean, Gardentasunari buruzko Foru Legea betetzen al dugu?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Fecha	24/01/2025 08:41:58
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	NEREA MARTIN CESTAO (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Página	22/32



11-25/PES-00020. Galdera, Nafarroako Ubidearen eta Kontzesio Obren Bulegoa sortzeari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamari-que jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen eta Kontzesio Obren Bulegoa sortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko kide Adolfo Araiz Flamariquek honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Lurralde Kohesiorako kontseilariaren azaroaren 11ko 104/2024 Foru Aginduaren bidez aldatu zen Lurralde Kohesiorako kontseilariaren azaroaren 17ko 86/2022 Foru Agindua, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duena bulegoen mailan.

Foru agindu horren bidez Lurralde Kohesiorako Departamentuaren egitura organikoa aldatu zen, halako moduan non atal bat sortu baitzen Ekonomia eta Aurrekontu Kudeaketarako eta Gastuaren Kontrolerako Zerbitzuan, eta horren barruan, berriz, honako bulego hau: Nafarroako Ubidearen eta Kontzesio Obren Bulegoa.

Foru aginduaren bigarren apartatuan ezartzen denez, "burutzak bere mailaren ehuneko 65eko lanpostuko osagarria izanen du"; ez da zehazten, ordea, burutza atal berriarena den ala atalaren barruko Nafarroako Ubidearen eta Kontzesio Obren Bulegoarena.

Hori dela-eta, honako hau galdetzen dut:

1.- Zerk eraman du departamentua atal eta bulego horiek sortzera?

2.- Orain arte nork betetzen zituen Nafarroako Ubidearen eta Kontzesio Obren Bulegoari atxiki zaizkion eginkizunak?

3.- Bulego horren burutzari zergatik ezarri zaio % 65eko lanpostuko osagarria?

4.- Foru administrazioan diren bulegoetako zenbat burutzari ezarri zaio ehuneko horretako lanpostuko osagarria?

5.- Ohikoa al da bulegoak sortzen direnean Nafarroako Ubidearen eta Kontzesio Obren Bulego-ko burutzari ezarri zaion ehunekoaren moduko lanpostuko osagarriak ezartzea bulegoetako burutzei?

6.- Ohikoa ez al da burutzei bateraezintasune-ko osagarria (% 35) edo arduraldi eskusibokoa (% 55) aplikatzea, baina inola ere ez % 65eko lanpostuko osagarria?

7.- Burutza bati lanpostuko osagarri hori ezarri aitzin aldeko txostena egin al du Funtzio Publiko-ko Zuzendaritza Nagusiak?

8.- Funtzio Publikoko nork justifikatu du lanpostuko osagarri hori ezartzea Nafarroako Ubidearen eta Kontzesio Obren Bulegoari?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Fecha	24/01/2025 08:41:58
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	NEREA MARTIN CESTAO (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Página	23/32



11-25/PES-00021. Galdera, Nekazaritza Politika Erkidearen ordainketak pertsona juridikoei atxikitzeari edo enbargatzeari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Nekazaritza Politika Erkidearen ordainketak pertsona juridikoei atxikitzeari edo enbargatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko kide Adolfo Araiz Flamariquek honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

1.- Azken lau urteotan zenbat pertsona juridikori atxiki edo enbargatu zaizkio Nekazaritza Politika Erkideatik heldu eta Nafarroako Gobernuak ordaindu behar zituen dirulaguntzak?

2.- Zein izan dira zenbatekoak?

3.- Zer pertsona juridiko izan dira Nekazaritza Politika Erkideatik heldu diren dirulaguntza horren atxikipen edo enbargoaren xede? Zein izan da horietako bakoitzaren zenbatekoa?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-25/PES-00022. Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak NUPekin noiz sinatuko duen hura 2025etik 2028ra bitarte finantzatzeko hitzarmena, 2024ko abenduaren 23an eman baitzen horren berri

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak NUPekin noiz sinatuko duen hura 2025etik 2028ra bitarte finantzatzeko hitzarmena, 2024ko abenduaren 23an eman baitzen horren berri.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentariari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak noiz sinatuko du NUPekin hura 2025etik 2028ra bitarte finantzatzeko hitzarmena, 2024ko abenduaren 23an eman baitzen horren berri?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Fecha	24/01/2025 08:41:58
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	NEREA MARTIN CESTAO (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Página	24/32



G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-25/ELCO-00001. Nafar Komunitateen Kontseiluan Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen bi ordezkari eta horien ordezkoak hautatzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrarekin bat, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Urriaren 16ko 90/2024 Foru Dekretuak Nafar Komunitateen Kontseiluaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautzen ditu, eta komunitate horiek aitortzeko eta ofizialki erregistratzeko prozedura ezartzen du. 7. artikulua e) letrak ezartzen du Kontseiluko kideak izanen direla, besteak beste, Nafarroako Parlamentuak proposatutako bi pertsona, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoarekin bat etorritik.

Bestalde, 8. artikulua ezartzen du kanpoko nafar herritarrekiko harremanen arloan eskumena duen departamentuko titularrak izendatuko dituela Nafar Komunitateen Kontseiluko kideak foru-agindu bidez. Lau urterako izendatuko ditu, eta iraupen bereko aldi baterako berritzen ahalko dira, hartatik eragotzi gabe hurrengo artikuluan kargua uzteko ezarritako edozein arrazoi gertatzea, edo kideak izendatzeko eskatzen diren baldintzak, 7.1 artikuluko a) eta b) apartatuetan jasotakoak, galtzea.

Halaber, batzordekideen izendapena proposatzeko ahalmena duten entitateek ordezkoak ere proposatu beharko dituzte.

Bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak, urtarrilaren 15eko idazkiaren bidez, eskatzen du Nafarroako Parlamentuak bi ordezkari eta horien ordezkoren izendapen-proposamena egin eta hura otsailaren 7a baino lehen jakinaraz dezan.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak ez du aurreikusten hautaketa horretarako arau berriak. Hori dela-eta, Erregelamenduen 42.1.9 artikulua erekin bat, Mahaiak eta Eledunen Batzarrak aipatu izendapena egiteko arauak onetsi behar dituzte.

Horretarako, Legebiltzarreko legelari nagusiak arau-proposamen bat prestatu du. Hori horrela, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen

42.1.9 artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin bat etorritik, ERABAKITZEN DA:

Lehena. Nafar Komunitateen Kontseiluan Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen bi ordezkari eta horien ordezkoak hautatzeko prozesua hastea.

Bigarrena. Aipatu hautaketa egiteko arauak onestea. Hona arau horiek:

1. Talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak hautagaiak (titularrak eta ordezkariak) aurkezteko idazki bat helaraziko diote Legebiltzarreko Mahaiari, eta idazki horretan jasota agertuko da proposatutako hautagaiak adierazita onarpena.

Hautagaitzak aurkezteko epea heldu den **urtarrilaren 30eko 17:30ean bukatuko da**. Epea bukatuta, Mahaiak haiek kalifikatu eta aldarrikatu ditu.

2. Hautaketa Legebiltzarren Osoko Bilkuran egingen da, ezkutuko bozketaren bidez. Txartelen bidez egingen da bozketa, eta foru parlamentari bakoitzak gehienez ere bi izen jartzen ahalko ditu haietan.

Boto eskuordeturik balego, eskuordetza-emailea deitu ondoren bozkatuko du eskuordetza-hartzaileak.

Mahaiak botoak zenbatuko ditu, eta boto gehien lortu dituzten hautagaiak aldarrikatu ditu.

3. Hautaketan eragina izan dezaketen balizko berdinketak ebatziko dira boto kopuru bera lortu duten hautagaien arteko bigarren bozketa baten bidez. Berdinketak bere horretan badirau, boto-kopuru bera duten hautagaien arteko hirugarren bozketa bat egingen da; eta berriro ere berdinketa gertatuz gero, hautaketa-prozedura amaitu dela deklaratu da eta prozedura berri bati ekinen zaio.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Fecha	24/01/2025 08:41:58
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	NEREA MARTIN CESTAO (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Página	25/32



11-25/REPA-00001. Foru parlamentariak nahiz Legebiltzarraren zerbitzuko langileek egindako bidaia ofizialengatiko 2025. urterako ordainsari-araubidea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 20an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzaitza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak txosten bat aurkeztu du, foru parlamentariak nahiz Legebiltzarraren zerbitzuko langileek egindako bidaia ofizialengatiko ordainsari-araubideko zenbatekoei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 17 eta 42. artikuluek xedatuarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Eguneratzea, 2025. urterako, foru parlamentariak egiten dituzten bidaia ofizialengatiko eta Legebiltzarreko langileek zerbitzu-ematearen kariaz egiten dituztenengatiko ordainsarien araubideari dagozkion zenbatekoak. Honako hauek izanen dira:

– Nafarroatik kanpora eginiko bidaia ofizialengatiko ordainsariak (mantenu-gastu arruntak): 56,60 €/egun.

– Atzerrira eginiko bidaia ofizialengatiko ordainsariak (mantenu-gastu arruntak): 90,80 €/egun.

– Lokomozio-gastuengatiko ordainsariak: 0,36 €/km.

2. Maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 8. artikuluan xedatutakoarekin bat, honako hauek dira karga-salbuespena duten zenbatekoen mugak 2024rako: mantenu-gastuengatik: Espainiako lurraldearen barneko joan-etorriak direnean, 58,34 euro egun bakoitzeko, eta atzerrira eginiko bidaiak direnean, 99,91 euro egun bakoitzeko; lokomozio-gastuengatik: 0,35 euro kilometroko, gehi justifikaturiko bidesari- eta aparkaleku-gastuak.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitaratu dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/REPA-00002. Talde parlamentarioek 2025. urtean jasoko dituzten dirulaguntzak

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 20an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzaitza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten bat aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuaren 2025eko ekitaldirako aurrekontu-proiektuan talde parlamentarioendako onetsiriko dirulaguntzei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 39. eta 42. artikuluek xedatuarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Ezartzea ezen, 2025eko urtarrilaren 1etik aitzinako eraginez, talde parlamentarioendako dirulaguntzek gehikuntza izanen dutela; hain zuzen ere, 2024ko abenduaren 31n indarrean zeudenen ehuneko 2koa.

2. Onestea talde parlamentarioek jasoko dituzten ordainsariak, 2025eko urtarrilaren 1etik aitzinako eraginez. Honako hauek izanen dira:

a) Dirulaguntza finkoa: 8.800,56 euro/hilabete/talde parlamentario.

b) Dirulaguntza aldakorra: kontzeptu hauetatik suertatzen den batura:

Funtzionamendu-gastuak: 1.590,18 euro/hilabete/parlamentari.

Antolaketa-gastuak: 1.215,84 euro/hilabete/parlamentari.

Langile- eta jarduera-gastuak: 4.536,96 euro/hilabete/talde parlamentarioko bost parlamentari bakoitzeko edo zatikiko.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitaratu dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Fecha	24/01/2025 08:41:58
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	NEREA MARTIN CESTAO (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Página	26/32



11-25/REPA-00004. Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 2025. urterako ordainsariak

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 20an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak txosten bat egin du Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 2025. urterako ordainsariei buruz.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Lehendakariaren Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKITZEN DA:

1. Zehaztea Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariak 2024rako araututako berberak izanen direla, sektore publikoaren zerbitzuko langileendako 2025. urterako gehieneko ordainsari-igoera globala ezartzen duen Estatuko legedia onesten ez den bitartean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/REPA-00004. Foru parlamentarien 2025. urterako ordainsariak

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 20an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak txosten bat egin du foru parlamentarien 2025. urterako ordainsariei buruz.


Foru parlamentarien ordainsariei buruzko arautan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 17., 19. eta 42. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Zehaztea foru parlamentarien ordainsariak 2024rako araututako berberak izanen direla, sektore publikoaren zerbitzuko langileendako 2025. urterako gehieneko ordainsari-igoera globala ezartzen duen Estatuko legedia onesten ez den bitartean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Fecha	24/01/2025 08:41:58	
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original	
Firmado por	NEREA MARTIN CESTAO (Firma incrustada)			
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Página	27/32	

11-25/REPA-00004. Foru parlamentarietara bilkuretara bertaratzeagatik 2025. urtean jasoko dituzten ordainsariak

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 20an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak jaulkitako txostena, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 17. eta 42. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Zehaztea foru parlamentarietara bilkuretara bertaratzeagatik jasoko dituzten ordainsariak 2024rako araututako berberak izanen direla, sektore publikoaren zerbitzuko langileendako 2025. urterako gehieneko ordainsari-igoera globala ezartzen duen Estatuko legedia onesten ez den bitartean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/REPA-00005. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioek eta kontratudunek 2025. urtean jasoko dituzten ordainsariak

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak, indarrean dagoen araudiari jarraituz, txosten bat egin du, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioen eta kontratudunen ordainsariei buruzkoa.


Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluan eta Legebiltzarreko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Zehaztea Nafarroako Parlamentuko langile funtzionarioen eta kontratudunen ordainsariak 2024rako araututako berberak izanen direla, sektore publikoaren zerbitzuko langileendako 2025. urterako gehieneko ordainsari-igoera globala ezartzen duen Estatuko legedia onesten ez den bitartean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Fecha	24/01/2025 08:41:58	
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original	
Firmado por	NEREA MARTIN CESTAO (Firma incrustada)			
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Página	28/32	

11-25/REPA-00005. Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek 2025. urtean jasoko dituzten ordainsariak

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak txosten bat egin du Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko behin-behineko langileen 2025erako ordainsariei buruz.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Zehaztea Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen urteko ordainsari gordinak

2024rako araututako berberak izanen direla, sektore publikoaren zerbitzuko langileendako 2025. urterako gehieneko ordainsari-igoera globala ezartzen duen Estatuko legedia onesten ez den bitartean.

2. Behin-behineko langileei aplikatzea Mahaia- ren 2012ko abenduaren 17ko eta 2024ko abuztuaren 6ko Erabakien bidez zerbitzu-aitorpenari buruz onetsitako irizpideak.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.


Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias


CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Fecha	24/01/2025 08:41:58
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	NEREA MARTIN CESTAO (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Página	29/32



CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Fecha	24/01/2025 08:41:58
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	NEREA MARTIN CESTAO (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Página	30/32



CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Fecha	24/01/2025 08:41:58
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	NEREA MARTIN CESTAO (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Página	31/32



CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Fecha	24/01/2025 08:41:58
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	NEREA MARTIN CESTAO (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH27Y2B5EOXLHSAQFRMJ7HLY	Página	32/32

